



Haur Hezkuntza

1. Modulua: Irakasle Funtzioa DIZIPLINARTEKO LANA (DAL) EGITEKO GIDA

2020-2021

Aurkibidea

1. Aurkezpena.....	3
2. Arautegia eta Salbuestea.....	5
3. Helburuak eta gaitasunak.....	7
3.1. Helburuak.....	7
3.2. Gaitasunak.....	7
4. Lanaren garapena.....	8
4.1. Kronograma.....	8
4.2. Azken txostena.....	9
4.3. Txostenak egiteko orientabideak.....	9
4.4. Lana garatzeko faseak.....	10
4.5. Eszenatokiak.....	12
5. Ebaluazioa.....	13
5.1. Gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak.....	14
6. Bibliografia.....	15
7. Eranskinak.....	16
7.1. Ebaluazio txantiloiak.....	16

1. Aurkezpena

Titulazio eta ikasketa plan berriak berriro planteatu direnez, Bilboko Hezkuntza Fakultateak irakasleen hasierako prestakuntzaren inguruan hausnarketa bat egin du eta irakaskuntza ulertzeko moduan aldaketa batzuk sartu ditu.

Lanbide honek etorkizunean prestakuntza sendoagoa eta konplexuagoa eskatuko die oraingo ikasleei, bizi dugun errealitate sozial eta kulturean txertatua, eta "ikasten ikasi" goiburuan oinarritua.

Arrazoi horiengatik, Fakultateak diziplina artekotasuna sustatuko du, diziplina-batuketaren ordez, eta kolaborazio-lana banakako lanaren ordez: Egitura modularra Hezkuntza arloko titulazioetarako.

Lauhileko berean ematen diren irakasgaiekin modulua osatzen da; hartara, irakasgai bakoitzak bere eremu akademiko propioa izango du, baina kreditu bat lagako da Moduluko Diziplina arteko Lan bat (DAL) egiteko. Kreditu horiek irakasle-taldeak (lauhileko horretan irakasten ari diren irakasleak) gainbegiratuko ditu, eta talde horrek diseinatuko du ikasleek lankidetzan egin behar duten diziplina arteko lana.

Lankidetzak-ikasketa estrategia didaktiko bat da, eskolak talde txikitan (5-7) antolatzea duena oinarri; talde horietan ikasleek koordinatuta lan egiten dute zeregin akademikoak burutzeko eta dagokien ikasketa garatzeko. Egoera horretan parte-hartzaileen helburuak elkar lotuta daude, eta "bakoitzak bere helburuak lortuko ditu, baldin eta besteek berenak lortzen badituzte".

Titulazioaren 1. ikasturtean "Eskolako egokitzapen aldia" gaia lantzea adostu dute irakasleek. Horretarako, Problemetan Oinarritutako Ikasketaren (ABP/POI) metodologia erabiliko da Moduluko Diziplina arteko Lana egiteko orduan, eta 5 kredituko balioa izango du. Lan hori dagokion irakasle-taldeak gainbegiratu eta ebaluatuko du.

Hona hemen Moduluko Diziplina arteko Lanaren (DAL) definizioa: "ABP/POI metodologia aplikatzea zenbait egoera edo problema aztertu eta nola ebatzi daitezkeen ikusteko, eta idatzizko txostena prestatzea metodologia honetan onartutako pausoei jarraituz".

1. modulua, **"Irakasle- funtzioa"** deritzona, Haur Hezkuntzari eta Lehen Hezkuntzari dagokion graduko 1. ikasturtean garatzen da, lehenengo lau hilekoan.

Moduluko Diziplina arteko Lanak (DAL) 5 kreditu hartzen ditu guztira, eta irakasgai hauei dagozkie:

- *Irakasle-funtzioa*
- *Hezkuntzaren soziologia*
- *Hezkuntzaren Teoria eta Historia*
- *Komunikazio gaitasunaren garapena I*
- *Eskola-adineko garapenaren psikologia*

Lan honetan erabili beharreko metodologia "Problemetan Oinarritutako Ikasketa" izango da (Ikusi Tec de Monterrey (2000). Las técnicas didácticas en el modelo educativo del Tec de Monterrey. 2016-06-03an hartu hemendik: http://sitios.itesm.mx/va/dide/docs_internos/inf-doc/tecnicas-modelo.PDF).

Moduluko Diziplina arteko Lanak (DAL) ez du izan behar aparteko zeregin bat ikasleentzat; aitzitik, moduluko irakasgai guztien osagaia izango da, eta egiteko horretan ikasturteko gaitasunak eta titulazioko zeharkako gaitasunak landuko dira.

Moduluko Diziplina arteko Lanak (DAL) jarraibide hauek izango ditu:

1. Moduluko Lana egiteko ikasle-taldeak lauhilekoaren hasieran argitaratuko dira; talde bakoitzari tutore bana izendatuko zaio, eta betiere eman beharreko irakasgaietako baten irakaslea izango da.
2. Lan horren lehenengo fasea 4. eskola-asteen egingo da (irailaren 30etik urriaren 4ra) eta bigarren fasea 9. astean (azaroaren 4tik 8ra). Lauhilekoko azken astean (abenduak 16-20) talde bakoitzak bere lanaren ahozko defentsa egingo du tutorearen aurrean.
3. Lana egiteko, 125 ordu inguru beharko dituzte ikasleek (5 kreditu), 10 astetan banatuta; horietatik 2 astebete (50 ordu) aurrez aurrekoak izango dira eta tartean dauden arlo guztiek hartuko dute parte, bakoitzari dagozkion eskola-orduetan, bai aurrez aurreko eskoletan, bai praktikan. Gainerako orduak ez dira aurrez aurrekoak; nolana ere, lan hori egiteko, ikasle bakoitzak gutxi gorabehera 12 ordu sartu behar ditu astean.
4. Lana egiteko talde bakoitzak gutxienez 4 tutoretza-saio izango ditu.

2. Arautegia eta Salbuestea

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu justifikatutako arrazoiengatik (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo de-dikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DAL horrekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.

Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan urriaren 10a baino lehen, eta honek behar dituzten informazioak emango dizkie, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia; lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da, hau da, %16a irakasgai bakoitzaren kalifikazioan.

DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).

Edonola ere, UPV/EHUko Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 15ean onartutako araudia aplikatuko da (EHAA, 50 zb. 2017ko martxoaren 13a).

DALa egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
 2. Graduako ikasleek DALa egin beharko dute, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.
 3. DALa egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DALaren portzentajea aplikatu gabe.
 4. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.
- Aurreko kasuetako edozeinetan gomendatzen da moduluaren edo titula-zioaren koordinatzailearekin hitz egitea, egoeraren berri emateko.

3. Helburuak eta gaitasunak

Moduluko Diziplina arteko Lanaren gai nagusia: **“Eskolako egokitzapen aldia”**

3.1. Helburuak

1. Problema bat aztertzea, ABP/POI metodologia aplikatuz, 1. moduluko irakasgaien ikuspegitik.
2. Unean uneko egoera-problemen aurrean ondo arrazoitutako erantzun hezigarria eraikitzea.
3. Irakasleen lanaren konplexutasuna azaltzea, eskolara egokitzeko arazoetatik abiatuta.
4. Jarrera kritikoak eta arduratsuak izatea irakasle-funtzioari begira.
5. Idatzizko txosten bat prestatzea, emaitzak eta lan-prozesua jakinarazteko.

3.2. Gaitasunak

1. Irakasle-funtzioaren egoera gatazkatsuak identifikatu, aztertu eta ebaztea; horien aurrean erabaki arrazoituak eta etikoak hartu beharko dira, tartean dauden arloak kontuan hartuta.
2. Eskola curriculumean sartzen diren zientzia eta kultura eremu desberdinetako testuen irakurketa eta iruzkin kritikoa sustatzea.
3. Irakasle-funtzioaren dimentsio hezitzailea gureganatzea eta hezkuntza demokratikoa sustatzea.
4. Taldean lan egitea eta modu autonomoan eta lankidetzan ikasteko ohiturak eta trebetasunak hartzea.
5. Ikastetxeetako egoerei eta hezkuntza guneei buruzko gogoeta egitea, berrikuntzak sartzeko eta irakasle-lana hobetzeko.
6. Euskara/gaztelania ondo jakitea, hizkuntzaren ekoizpen eta ulermen zuzena eta egokia erakustea, eta errespetuzko jarrerak garatzea hizkuntza nahiz kultura aniztasunaren aurrean.

4. Lanaren garapena.

4.1. Kronograma.

Jarduerak	Astea	Tutore-tza	Bana-kakoa	Taldean	Emateko agiriak
<ul style="list-style-type: none"> Gidaren azalpena. ABP, ABP ereduak, talde-lana. Taldeak eratu, funtzionamendu arauak, rolak eta zereginak banatu. Egoerak aztertu, problema aukeratu eta aukera justifikatu 	4.: Irailak 28- Urriak 2 Birtuala		X	X	Taldearen funtzionamendua, arazoaren aukeraketa, justifikazioa.
<ul style="list-style-type: none"> Problema zehaztu; zer dakigu? Hipotesiak planteatu. Gehiago jakin behar dugu? Non? Zer ekarpen egiten digu moduluko irakasgai bakoitzak? Zereginak banatu Informazioa bilatu. 	5.: Urriak 5-9		X	X	
	6.: Urriak 12-16	X			
	7.: Urriak 19-23				
<ul style="list-style-type: none"> Informazioa aztertu eta hautatu Informazio berria bilatu. 	8.: Urriak 26-30		X	X	
<ul style="list-style-type: none"> Emaitzak taldera eramatea. Problema berriz definitu. Problema ebazteko ekintza posibleak prestatu. * Taldearen aurrean aurkeztea burutzen ari den lana. Azken Txostena egin eta ahozko defentsa diseinatzea 	9.: Azaroak 2-6 Birtuala		X	X	Txostenaren 1. ziri-borroa, bibliografia...
	10.: Azaroak 9-13	X			
	11.: Azaroak 16-20				
<ul style="list-style-type: none"> Tutorearen txostena entregatzea 	12.: Azaroak 23-27				Azken txostena
Tutoreek lanak ebaluatzen dituzte	14.: Abenduak 7-11				
Ahozko defentsa tutorearen aurrean	15.: Abenduak 14-18				

Moduluko Lana prestatzeko 1. astea: **irailak 28-urriak 2**

Moduluko Lana prestatzeko 2. astea: **azaroak 2-6**

Txosten/dosierra tutoreari entregatzeko: **azaroak 23-27**

Moduluko Lanaren ahozko defentsa: **abenduak 14-18**

4.2. Azken txostena.

Taldeak entregatu behar duen lana txostena izango da, eta honakoak hartuko ditu barne:

- Aukeratu den agertokia eta aukera horren justifikazioa.
- Problemaren konponbidea bilatzeko jarraitu den prozesua; argi eta garbi azaldu beharko dira pauso bakoitzean iturri desberdinetatik lortutako informazioak eta taldeak adostutako ekarpenak.
- Taldearen funtzionamendua: arauak.
- Taldearen bilera-aktak.
- Taldeko eta banakako gogoeta-autoebaluazioa.
- Problemaren konponbiderako erabili den dokumentazio osagarria, eranskinetan jasota.

4.3. Txostenak egiteko orientabideak.

Lan horrek unibertsitateko edozein lanek dituen ezaugarriak izango ditu egitura zientifikoari, aspektu formalei eta hizkuntza-egokitasunari dagokiela.

Aspektu formalak

- Txostenak 15-20 orrialdeko luzera izango du, erreferentzia bibliografikoak barne.
- Gutxienez, 10 iturri bibliografiko fidagarri eta espezializatuak erabili beharko dira.
- Bibliografia atalean agertzen diren erreferentzia bibliografiko guztiak lanean zehar erabili eta agertuko dira.
- Eranskinak lanaren gorputzean aipatu eta amaieran gehituko dira (15-20 orrialdetatik kanpo).
- Testua 1,5 puntuko lerroartearekin idatzita egongo da, eta paragrafoak justifikatuta.
- Letra mota Times New Roman, Arial edo Calibri izan daiteke (12 tamaina).
- Paperak DIN A4 tamainakoa izan beharko du.
- Marjinak 2,5 zm.koak izango dira alde guztietan.
- APA arauak erabili beharko dira, bai testuaren barruan aipuak egiteko bai eta erreferentzia bibliografikoak jasotzeko ere: https://www.ehu.es/documents/2293351/2391784/normas_apa_tfg.pdf
- Erabilera ez-sexista bultzatzeko bibliografian egile guztien izen eta abizenak jarriko dira, EHUko Berdintasuneko Sailak gomendatzen duen

Hizkuntza gaitasuna

* Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean –beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik–, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte.

Aspektu hauek hartuko dira kontuan:

- Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna
- Diskurtoaren ulergarritasuna
- Hiztegia eta ortografia
- Ergatiboa eta komunztadura

Plagioa: Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egina balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL ez da gaindituko.

4.4. Lana garatzeko faseak.

A) "Problema" edo hasierako agertokia hautatzea **taldeka**, eta hautaketa hori justifikatzea. (Ikasleari 2 agertoki eskainiko zaizkio).

B) Problema ebaztea, **jarraibide** hauen arabera:

- Egoera irakurri (banaka eta taldean), zalantzak azaltzea (terminologia, kontzeptuak, egoerak...) Eta egoera konpontzeko bide desberdinak planteatzea (non egin kontsultak, nola...). Problemaren ertz guztiak denen aurrean azaltzea. Problema definitzea.

- Zer dakigu problema honetaz edo gai honetaz? Ezagutzen dugu antzeko problemarik? Inoiz entzun dugu ezer horretaz? Bizi izan dugu antzeko egoerarik? Problemari ebazpide desberdinak ematea (hipotesiak).

- Taldea osatzen dutenen ekarpen **indibidualak** idatziko dira; alde batetik, gai horretaz dakitena, eta bestetik, konponbiderako egon daitezkeen aukerak.

- Zerbait gehiago jakin behar dugu? Non bilatu? Zer ekarpen egiten digu moduluko irakasgai bakoitzak problema ebazteko? Zereginak banatu, informazio berria bilatzeko aukerak eman eta Lanerako Plan bat egitea.

- Informazioa bilatu, hautatu eta aztertzea.
- Emaizak taldera eramatea. Informazio berria aztertu eta problema berriz definitzea.
 - Problemaren kausak, jatorria eta ondorioak bilatu beharko lirateke, ahal den ikuspuntu gehienetatik eta bere osotasunean aztertu (moduluko irakasgaiekin lotuta dagoen heinean), eta funtsezko kontuak hauteman, konponbiderako esku-hartze ildoak eskainiz.
 - Ikertutakoaren zergatia baloratu, "ezagutu berri" dena zailantzan jarri, hartara, balioak bereganatzea sustatuz, edo errealitatearen aurrean jarrera kritikoa izatea behintzat.
- Problemaren konponbidea bilatzeko ekintzak prestatzea.
- Ikasitakoaren eta gauzatutako prozesuaren ebaluazioa egin, ondorioak atera eta entregatu beharreko lanari azken taxuketa ematea.

4.5. Eszenatokiak.

GAIA: ESKOLARA EGOKITZEKO ALDIA

1. Egoera

Asierrek 2 urte eta 10 hilabete ditu lehenengo aldiz eskolara doanean. Ume argaltxoak da, txikia eta pisu gutxikoa. Egokitzapen aldian bere aita eta amarekin dator, beti besoetan. Gurasoentzat ere ikasgelara etortzen diren lehenengo aldia da, matrikulazioa eta informazio bilera beste eskolako toki batean egin zuten eta oraindik ez dute semearen maistra ondo ezagutzen. Sarrera-ordutegia ahal bezain beste luzatzen dute, goizeko hamararak arte, eta agurrak luzeak eta zailak dira: Hirurek batera jolasten dute unea heldu arte, gurasoak oso triste jartzen dira, ez dute joan nahi izaten, eta azkenean urruntzen dira semeari begiratzuz, atea itxi arte. Orduan, gurasoak bistatik galtzen dituenen, umea negarrez hasten da, eta keinuen bidez irakasleari eskatzen dio besoetan hartzeko. Irakasleak hartu eta lasaitzen du, eta behin lasaituta lurrean uzten du, berriro bere arreta eskatzen dion arte. Handik bi hilabetera, Asierrek bakarrik jolasten du gelako izkina batean, baina begiradarekin jarraitzen die pertsona helduaren mugimenduei. Ez du ia hitz egiten, silaba bakarreko hitzak erabiltzen ditu eta keinu bidez komunikatzen da; hori bai, irakasleari bere izenez deitzen dio (María), eta sarritan, gainera. Beste ume batzuk bere ondora joaten dira kontsolatzera eta laztanak egiten dizkiote eta besarkatzen dute. Horrek zerbait lasaitzen du, baina berak Mariaren arreta eskatzen jarraitzen du, negarraren bidez.

2. Egoera

Ainhoa irakasle berria da eskolan. Ikasturtea ilusioz beterik hasi du, baina ez dauka esperientziarik. Bere ardurapean 20 umeko hiru urteko gela bat dauka. Aurretik ordezkapenen bat egin du Haur Hezkuntzan, baina beti izan dira oso laburrak eta zentroko gainerako irakasleen aldetik oso babestuta egon da. Hala ere, badaki oraingoan egoera konplikatuagoa dela. Orain ikasturte hasiera da eta berak dauka erantzukizun osoa. Hasteko, idatzi du bere egunerokoan goizetan, sartzeko orduan, dena direla negarrak eta kexak, estropezuak, bultzadak eta gonbitoren bat ere. Eguna abiarazteak bere energiaren zati handi bat kentzen dio. Badaki umeetako batzuk lehen aldiz doazela eskolara, ez dutela bi urteko gelako esperientzia; horri gehitu behar zaio badagoela oraindik ere esfinterrak kontrolatzen ez dituenik, ageriko antsietate kasuak, baten-baten oldarkortasun ezlandak, eta inorekin erlazionatzen ez den neskato batek ere kezkatzen, begietara begiratzeko ez diona. Gainera, umeetako batek arropa berbera eraman du aste osoan. Konturatu da ikasturtea hasi baino ez dela egin eta bere bizitza kezka bete dela. Iruditzen zaio oztopo-lasterketa batean parte hartzen ari dela, baina ezin duela kontrolatu. Ez daki nondik hasi.

5. Ebaluazioa.

Moduluko Lanaren (DAL) ebaluazioak bi zati ditu:

- 1) Ikasleek egindako ebaluazioa: taldeko ebaluazioak % 10 barne hartzen du.
- 2) Irakasle tutoreak egindako ebaluazioa:
 - a. Lana burutzeko prozesua: % 10.
 - b. Idatzitako txostena: % 60.
 - c. Ahozko aurkezpena: % 10.
 - d. Taldeari egindako ebaluazioa: % 10

Irakasle-tutoreak ondoko irizpideak erabiliko ditu DALa kalifikatzeko (ikus 1. eranskina):

ZER EBALUATZEN DA	NORK EGITEN DU		
	Irakaslearen ebaluazioa	Ikasleak	Irakasleak
		Taldearen ebaluazioa	Taldearen ebaluazioa
Txostena	% 60		
Prozesua	% 10	% 10	% 10
Defentsa	% 10		

Ikasle bakoitzaren azkeneko nota ondoko bost notetatik eratortzen da. DAL gainditzeko derrigorrezkoa da gutxienez nota bakoitzaren puntuazio erdia jasotzea.

DALa diziplina arteko lana da eta ikasle guztiek derrigorrez bete behar dute. Horren ebaluazioa formatiboa eta jarraitua izango da eta honetan oinarrituko da:

- Lan idatziak, adostutako datetan entregatuko direnak.
- Egindako lanaren ahozko defentsa tutorearen aurrean.
- Tutoretza-saioak dagokion tutorearekin

Moduluko Diziplina arteko Lanari (DAL) dagokion nota irakasgai bakoitzaren azken notaren %16 izango da (1,6 puntu).

Ezinbestekoa da lanaren prozesu osoan parte hartzea ebaluazio jarraian egon ahal izateko. Dena den, ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatua izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio moduluko koordinatzaileari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

Era berean, justifikatutako arrazoiengatik¹ ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu, DAL horrekin erlazionatutako egoera/problema bat ebatzi beharko du, eta hala badagokio, ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan. Horretarako, 9. astea baino lehenago justifikazioa eta lanaren plangintza egiteko moduluko koordinatzailearekin harremanetan jarriko da.

Proba horren balioa modulu honetan DAL lanari dagokion berdina izango da, hau da, 1,6 puntu irakasgai bakoitzaren kalifikazioan.

DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekainazuztaila).

5.1. Gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak.

GAITASUNAK	IKASKUNTZA-EMAITZAK	
Informazio eta komunikazio baliabideak (IK-Tak, bibliotekak, fonotekak, ...) kritikoki erabiltzea ezagutza iturrietara heltzeko eta komunikazio, ikaste, ikertze eta lan kooperatibo atazak errazteko.	Txosten idatzia	Informazio iturri oparoak erabiltzea Norberaren eraikuntza, ez plagioa Txosten idatzian erabilitako informazio eta komunikazio iturriak zuzen sartzea (APA arauak)
	Ahozko Aurkezpena	Informazio iturri oparoak erabiltzea
Ahoz eta idatziz zuzen egitea, adierazpide oparoak erabiliz*	Txosten idatzia	Zuzentasun linguistikoa (gramatikala eta ortografikoa). Gaiari eta adierazpen mailari dagozkien termino egokiak erabiltzea. Ideen aurkezpenean ordena, koherentzia eta logika izatea. Adierazten diren zati guztiak txonten idatzian sartzea.
	Ahozko defentsa	Zuzentasun linguistikoa (gramatikala eta fonetikoa). Gaiari eta adierazpen mailari dagozkien termino egokiak erabiltzea. Ideen aurkezpenean ordena, koherentzia eta logika izatea. Jariotasuna eta argitasuna azaltzean.
Estrategi didaktikoak diseinatzea gaitasun komunikatiboak aberrasteko (ahozkoak, ida-	Txosten idatzia	Azken aurkezpenaren eta txosten idatziaren arteko koherentzia. Lengoaia adierazgarriak erabiltzea (musika, plastika eta gorpuzkerak).

¹ Lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak

tziak, ikusizkoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak) garapen integralerako	Ahozko defentsa	Komunikazio trebetasunak erakustea. Berba txandak errespetatzea.
Taldean lan egitea parte hartzea, ardura, autoestimua, sormena, adiskidantza, askatasuna, erlaxazioa, dibertsioa, bizipoza eta kontzentrazioa sustatuz unean uneko jardunetan.	Taldearen auto-ebaluazioa	Hasieratik lan talde moduan antolatu: lan taldearen helburuak adostea, funtzioak, denbora, guneak, gatazkei aurre egiteko erak, etab. Adostutako lan plan bat egitea eta berorri jarraitu, plana aldatu beharrezkoa izanez gero. Modulu gidari jarraitu. Epeak bete.

6. Bibliografia

POI metodologiarekin lotutako oinarrizko bibliografia:

- Branda, L. A. (2008). El aprendizaje basado en problemas: el resplandor tan brillante de otros tiempos. In *El aprendizaje basado en problemas: Una nueva perspectiva de la enseñanza en la universidad* (pp. 17-46). Gedisa.
- Dolmans, D. H., De Grave, W., Wolfhagen, I. H., & Van Der Vleuten, C. P. (2005). Problem-based learning: Future challenges for educational practice and research. *Medical education*, *39*(7), 732-741.
- Hmelo-Silver, C. E., & Barrows, H. S. (2006). Goals and strategies of a problem-based learning facilitator. *Interdisciplinary journal of problem-based learning*, *1*(1), 4.
- Hung, W., Jonassen, D. H., & Liu, R. (2008). Problem-based learning. *Handbook of research on educational communications and technology*, *3*, 485-506.
- Neville, A. J. (1999). The problem-based learning tutor: Teacher? Facilitator? Evaluator?. *Medical teacher*, *21*(4), 393-401.

7. Eranskinak.

7.1. Ebaluazio txantiloiak.

Irakasleak ebaluatzeko txantiloia

Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira. Argudioak koherenteak dira.	Txostena eba- luatu % 60
Gaiaren ulermen sakona dago.	
Arrazoibidean heldutasuna erakusten da.	
Informazio iturrien erabilera egokia da, planteatutako oinarriak sostengatzeko.	
Arazoa aztertu da, AOI metodologia aplikatuz.	
Taldekide guztiak inplikatu dira lanean.	Prozesua eba- luatu % 10
Lan talde kohesionatu gisa aritu dira.	
Taldeak partaidetza aktiboaren jarrera mantendu du.	
Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu du materiala	
AOI-ko prozesuko faseak gauzatu dira.	
Atal guztiak landuta daude eta taldekide guztiak edozein ataletaz erantzuteko gai dira.	Defentsa eba- luatu % 10
Jarriotasunez eta erritmo egokian aritu dira.	
Baliabide linguistikoen erabilpena egokia izan da.	

Ikasleak ebaluatzeko txantiloia

Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu dut (taldearen funtzionamenduan lagundu dut, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten, dinamizatzen, etab.)	Prozesua eba- luatu % 10
Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditut.	
Taldeak burututako bilera guztietara joan naiz esleitutako zereginak eginda.	
Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman dut.	
Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu dut materiala.	
Beti nago irekia taldeko beste edozein kideren kritikak edo iradokizunak entzuteko.	

Irakasleak taldeari autoebaluazioa egiteko txantiloia

Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira. Argudioak koherenteak dira.	Prozesua eba- luatu % 10
Gaiaren ulermen sakona dago.	
Arrazoibidean heldutasuna erakusten da.	
Informazio iturrien erabilera egokia da, planteatutako oinarriak sostengatzeko.	
Arazoa aztertu da, AOI metodologia aplikatuz.	